

Feminismoaren alorreko testuen itzulpengintza integrala

— — — — —
AMAIA ASTOBIZA URIARTE
(Itzultzailea eta Elhuyarreko kidea)

Egilearen oharra

Lehenik eta behin, argitu nahi dut itzultzaile naizen aldetik nagoela gaur hemen, artikulua hau idazten. Beraz, txarto edo ozenegi esandako guztiak niri aurpegiratu behar dizkidazue, ez beste inori. Baina bai, Elhuyarreko kide eta langilea ere banaiz, eta, batez ere, hiztegi gintzaren alorrean garatu dut nire ibilbidea, tarteka itzulpen-lanen bat edo beste egiten badut ere. Horrek guztiak, jakina, erabateko eragina du nire etxeko itzulpen-lanetan, azken horiek Elhuyarreko jardunean duten era berean. Ezinezkoa zait titulu bat alde batera utzi eta bestearen ize-nean bakarrik idaztea, ahotsa bakarra baita, nirea. Beraz, hortxe doaz bi tituluak, izen-buruaren azpian, elkarren babesean.

Bigarrenik, idazkerari buruzko ohar bat: luzetara, zabaletara eta sakonetara idazten dut, pentsatu ere halaxe pentsatzen duda-

lako, enborrez enbor, adarrez adar, hostoz hosto. Gero, saiatzen naiz enbor, adar eta hosto horiek inausten, kimatzen, muskitzen, baina ez pentsa arrakasta handirik izaten dudarik. Beraz, arnasa luzeko artikulua honetan murgilduko bazara, beharbada oxigeno-botila bat zuzendu behar zenuke, ezbeharririk gerta ez dadin. Ez dakit, zeuk ikusi.

Hitzaurrea

Horiek azaldu ostean, itzul gaitzezen esku artean dugun eginkizunera. Itzulpengintza feministari buruzko zer edo zer idatziko dudala adostu dut *Senez* aldizkariko kideekin, berbagai jakingarria iruditzen zaielako eta nik ere tartean-tartean horri buruzko gogoeta erabiltzen dudalako nire baitan. Orain, horretara jarrita, iruditzen zait termino hori, *itzulpengintza feminista*, hasiera

batean uste nuen baino konplexuagoa dela eta, bestalde, ziurrenik bi aldeek hasieran ulertu genuen hura dela garrantzi txikiena duena edo, behintzat, neure buruan gutxienetan dantzan dabilena.

Nolanahi ere, oraingoz definizioari buruzkoak alde batera utzi, eta gaur hemen esplikatu nahi dudan konturik garrantzitsuenaekin hasiko gara. Itzulpen-lan luze bat egiteko, bi gauza behar dira: ingurukoaren babesa eta txokolate beltza. Lehenari dagokionez, hoberena litzateke sare sendo bat izatea inguruan, elkar elikatzeke eta elkar zaintzeko. Halere, besterik ezean, aski da itzultzaileak autoboitkotik ez egitea, hau da, bere burua apurtxo bat maitatzea eta lantzean-lantzean laztanen bat egitea (katu mainati bat inguratzen baduzu ere, txarto ez). Txokolateari dagokionez, beltza izan behar du, (ia) nahitaez –esan nahi baita, % 74tik gorakoa–, eta, almendrak baditu, edo hurrak, edo laranja-zatitxoak, edo gatz pitin bat, askoz hobeto. Sagar-zukua eskura izatea ere ondo etortzen da, batez ere lanaren amaiera aldera, txitean-pitean sortzen diren urduritasun-kolpeak berehalako azukre-gaindositan itozteko (baina hau ez kontatu nire fisioterapeutari).

Jakina, orain arte esandakoak ez dagozkio soilik feminismoari buruzko testuen itzulpengintzari, baina tira, horri ere badagokionez, aipatu egin nahi nuen, horiek baitira, nire kasuan, itzulpen-lan bat egiteko proposamena iristen zaidanean lehenbailehen argitu beharrekoak: 1) zer eratako txokolatea jango dudan oraingoan, eta 2) zer moduz dabiltzan indarrez nire ingurukoak nik lan honekin aurrera egin ahal izateko. Supermerkatuak txokolatearen horni-

kuntzarik gabe utziko balituzte, azkenaldian farmazien biltegiak botikez hustu dituzten antzera, birritan pentsatu beharko nuke itzulpen-lana onartu aurretik –eta baiezkoa ez legoke inondik ere ziurtatuta. Bestetik, ikusiz gero bi semeak dena delakoagatik ere makal antzean dabiltzala, edo amaren behar handiarekin, edo amak eurekin pazientzia ikaragarria izateko premiarekin –hormonautak gara, zer egingo diogu–, orduan bai, erabakia argi samar izango nuke, proposatzailearen kalterako.

Halaxe ba, itzulpen-lan bati ekiteko, aski da orain arte esandakoak kontuan hartzea. Horrekin nahikoa baduzu, ez duzu aurrera egin beharrik. Zerbait gehiago jakin nahi baduzu, edo zeure burua nonbait islatua ikusteko beharra baduzu, edo, besterik gabe, zure trena ailegatzeko oraindik minutu luze batzuk falta badira eta gaurkoz jada sare sozialek gogait eragin badizute, aurrera segitzeko aukera duzu. Kafe bat eskainiko nizuke, baina gure etxeokari meheegi irizten diote probatzen dutenek; beraz, ontza bat txokolate, agian?

Bistan da: orain esango ditudan hauek antzeko lanetan dabiltzan beste itzultzaileek ere esan ditzakete, nik baino zehatzago eta dotoreago esan ere. Baina, Oihane Amantegi idazle bikain eta herrikidearen *Cayo Hueso* liburuko kapitain zaharrak dioen bezala, «Beste inork hitzik hartuko ez badu, zer dauka okerra begi nekatu hauek ikusitakoa kontatzeak?». Halako batean, niri ere iritsi zait iruzurtiaren sindromea bizkar gainetik astintzeko garaia. Behin eta berriro pentsatu izan dut edozein jarduera dela-ere beti egongo dela beste pertsona bat nik baino hobeto egingo duena; eta bai, jakina, egongo da;

bat bakarra ez, dozena bat eta gehiago ere bai. Baina pertsona txundigarri horiek ezin dute den-dena egin, eta, are gehiago, ez dute den-dena egiteko gogorik ez asmorik. Beraz, badira gauza batzuk nik egin beharrekoak, bestela beharbada beste inork egingo ez di-tuenak.

Sarrera

Hitzaurrean aipatu dut *itzulpengintza feminista* terminoa nik hasiera batean uste izan nuen –edo uste nahi izan nuen– baino konplexuagoa dela. Beraz, beste ezerekin jarraitu aurretik, zehaztu ditzagun termino horrekin lot ditzakegun adierak.

Alde batetik, testu feministen itzulpenari egiten diegu erreferentzia, eta hori da, nik uste, bi aldeek hasieratik gogoan izan du-gun ideia. Halere, beste adiera bat ere badu, neure kolkoan gero eta toki handiagoa har-tzen ari dena: itzulpen-jarduera feminista, hau da, ikuspegi feministarekin egiten den itzulpen-lana. Nire kasuan, bi adiera horiek nahastu egiten dira, gainjarri, korapilatu. Izan ere, batez ere feminismoari buruzko testuak itzultzen ditut, eta, lan horretan, bi-zitzako gainerako esparru guztietan bezala, ikuspegi feministarekin jarduten saiatzen naiz; gainera, itzulgai izaten ditudan tes-tuak, feminismoari buruzkoak izateaz gain, feministak ere izan ohi dira.

Zeren gauza bat da ikuspegi feministaz idatzitako testu bat –adibidez, medikun-tzari buruzkoa, edo lan-prekaritatearen ingurukoa–, eta beste bat, desberdina, fe-minismoari –haren teorizazioari, praktika-ri...– buruzko idatzi bat. Halaber, azken horiek bi eratakoak izan daitezke: femi-

nistak, ikuspuntu feministarekin idatziak, edo ez-feministak –adibidez, argi eta garbi feminismoaren aurka jotzen dutenak, edo, *ausartuko naiz esatera*, egunkarien larunbat-igandeetako aldizkari batzuetan argitaratzen diren artikulu sasifeministak. Alegia, testu bat feminista izateak ez dakar berez femi-nismoari buruzkoa izatea, ezta alderantziz ere. Baina, esan bezala, nik orain arte itzuli ditudan testu gehientsuenak feminismoari buruzkoak dira, eta, edonola ere, guztiak daude ikuspegi feministaz idatziak.

Beraz, hortxe paratzen naiz, batzuetan indarrez, besteetan makalago, feminismoari buruzko testu bat itzultzen, lan hori aha-lik eta ikuspegi feministarenarekin egiten eta, bitartean, pantailaz haragoko bizitza –feminista– aurrera bultzatzen. Gehienak testu trinko samarrak baina ez erabat es-pezializatuak izaten dira, akademiaren eta dibulgazioaren erdibidean kokatzen diren horietakoak; dena den, autorearen gogoetak islatzeko eta haren pentsatzeko mekanis-moei jarraitzeko trebezia izan behar dute, eta, beraz, testu jaso samarrak izaten dira, bai hizkuntzari, bai edukiari dagokienez.

Lehen atala: norentzat idazten dugu?

Juan Garziak esan digu aurren, esaldi lu-zeen itzulpenari buruzko ikastaro batean, euskaldunok hasieratik –Etxeparerenetik– jakin dugula egitura konplexuak egiten. Eta erakutsi ere halaxe erakusten dute eskolara ekarri zituen klasikoen ale bakan eta, hale-re, esanguratsuek. Nolanahi ere, nik ulertua dudanez, testu haiek ez zituen *edozeinek* irakurtzen, eta, gehienez ere, elizgizonez bapo zen elite intelektualak-edo leituko zi-

tuen. Garaiotan, berriz, pentsatu nahi dut guztiok –emakume eta gizon, klero eta gainerako– dugula era batean edo bestean saiakerak eskuratu eta irakurtzeko aukera. Alabaina, irakurmenari dagokionez, orain ere hizkuntza-gaitasun askotarikoak daude gure artean, eta horregatik, hain zuzen, batzuetan zalantza egiten dut, ez ote geniokeen euskarara ekartzen ditugun saiakeraliburuetao hizkuntza-mailari arreta gehiagoz begiratu behar. Orain, ea nire kezka hori ondo esplikatzen asmatzen dudan.

Literaturan, oro har, euskarara itzultzen duten itzultzaileak hedapen-garai batean daude –zaudete–, oraintsu arteko euskara estandarra zabaltzen, koloreztatzen, ñabarduraz josten. Praktika erakusten ari da narratibak, poesiak, baita antzerkiak ere, horretarako aukera handia ematen dutela, bai lexikoari, bai gramatikari dagokionez, eta posible eta are beharrezkoa dela euskarra idatziaren ahala indartzen jarraitzea. Oro har, esango nuke irakurleek gogo onez hartu dutela joera hori eta ikusten dutela, gainera, haien euskarak ere hazten eta aberasten jarraitzen duela etengabe, lurralde urrunagoetara heltzen –askotan, baita geografikoki ere.

Baina zer gertatzen da saiakerarekin? Literatura-genero horretan darabilgun euskarak ere badu gainerakoetakoak adina –eta abiadura berean– hedatzen jarraitzeko ahalbiderik? Ondo antzean jarraituko diote irakurleek aurrerabide horri, ala atzean geratzeko arriskua izango dute? Pixka bat gehiago estutuz: feminismoaren alorreko saiakera-lan itzuliek ere euskararen hedapen hori nabarmen sustatzen eta elikatzen jarraituz gero, zer gertatuko da gure irakur-

leekin? Galdu egingo ditugu, irabazi? Zeren ez dakit zein den beste kide batzuen xedea, baina nirea behintzat ez da ez Euskadi Saria irabaztea ez bestelako aitortzarik jasotzea (erabat helburu errespetagarria, bestalde, eta bihotz-bihotzez eta zalapartatsuki poztuko naiz egunen batean zuen itzulpen-lanetako batekin horrelakorik eskuratzen baduzue), baizik eta feminismoan adituak diren autoreek ondo mamitutako testuak albait txukunen euskarara ekartzea eta horiek ahalik eta jende gehiagorengana iristea. Beraz, nola jokatu behar dugu?

Azkenaldian batere norarik gabe ibili naiz hitzaldi eta liburu artean, eta jada ez daukat argi norik esan duen zer. Halere, gogoan dut nondik edo handik galde-erantzun hau iritsi zaidala: «Norentzat itzultzen dugu saiakera [euskarara], literatura-genero hori irakurtzeko ohitura dutenentzat ala irakurle potentzial guztientzat? Saiakerazaleek ere merezi dute hizkuntza jasoagoko testuak irakurri ahal izatea; baina, hala jokatuz gero, jende asko irakurri ezinik geratuko da». Gogoeta hori, lehenago esan bezala, feminismoaren gaineko saiakeraren eremura ere ekar dezakegu. Are gehiago: saiakera irakurtzeko eta, zehazki, saiakera euskaraz irakurtzeko ohitararik izan ez arren modu batean edo bestean liburu horietara iristen diren irakurleek ere izan behar lukete, beharbada, testu horien mamiaren parte esanguratsu bat xurgatzeko aukera, ez bakarrik haien hobe beharrez, baita gizarte osoaren mesedetan ere. Beharbada diot, zeren oraindik ere ez dut nahikoa pentsatu kontu honi buruz, nahiz eta jada hamaika buelta eman dizkiodan. Bistan da, nire bi alderdik talka egiten dute hemen:

itzultzaile/irakurlea, batetik, eta feminista militantea, bestetik.

Eta nondik dator zalantza-dantza hori guztia? Bada, ziurrenik, gure arlo honetako saiakera-lan itzulien irakurleek adierazten dizkidaten iritzietatik. Batzuek diote testu hau edo hori *bikain* euskaratuta dagoela eta oso ondo ulertzen dela; beste batzuk, aldiz, erdi-kexaka ibiltzen dira, esanez oso euskara *bihurria* iruditzen zaiela, kosta egiten zaiela ezer ulertzea eta orrialde gutxi batzuk irakurri eta liburuaz bazterreraz utzi dutela. Azken horiek aitortu ohi dute euskaraz gutxi irakurtzen dutela eta apur hori ez dela saiakera izaten, baizik eta narrazioa, «erraz irakurtzen den horretakoa». Eta, hori hala izanda ere, *errua* nolabait irakurleen bizkar egonda ere, ba ote dagokigu guri, itzultzaileoi, irakurketa hori apur bat samurtzea, estandarizazioaren muina izan den erdiguneko euskara estu eta zurrunago horri atxikitzea? Gaur baietz esango dizut; bihar, ezetz; eta etzi, auskalo, inguruneko hezetasunaren arabera, zeren, azken uda sargoritsu hauetan ikasi dudanez, faktore horrek gero eta gehiago eragiten die nire uste eta iritziei.

Orain, arnasa apur bat hartzeko –oraingoz, botilarik gabe–, eta liburuetatik burua altxatzeko, eraman dezagun diskurtso feminista beste plaza batera; adibidez, Martxoaren 8ko manifestazioetara. Ekitaldiaren amaieran irakurriko den testu bat bada, nik argi dut: al bait hizkuntzarik argiena erabiliko dut, al bait esamolde akademiko gutxienekin, al bait jerga feminista lurtarrenarekin, ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Hau da, badakit egun seinlatu horretan askotariko jendea izango dugula aurrean, eta haietako askok azal-azaletik baino ez dutela

ezagutuko diskurtso eta praktika feminista, are gutxiago teoria. Niri, ordea, pertsona horiengana guztiengana iristea interesatzen zait, pertsona horietako bakoitzarengana. Horregatik, hizkuntza ahalik eta garbi eta gardenena erabiliko dut; akademiako eta mugimendu feministako jargoi eta termino espezializatuak alde batera utzi, eta kontzeptuak azaltzera joko dut, nahiz eta horrek azken ekitaldiko hitzaldia luzatuko duen. Jendaurreko agerraldia laburtu behar bada, nahiago dut aldarrikapenen bat kanpoan uztea eta hantxe esango duguna argi eta guztiek ulertzeko moduan esatea.

Teresa Maldonado feminista ezagunak horri buruz hitz egiten du *Hablemos claro* (Catarata, 2021) liburuan, zeinarekin, berak bai, saiakeraren alorreko Euskadi Saria eskuratu baitzuen 2022an. Beste gauza jakingarri askoren artean, hauxe dio: «Geure buruari hitz egiten diogu, ala beste guztiei? Badakiguna finkatzeko, ala inguruan zabalatzeko? Hizkuntzaren erabilera kriptikoak segurtasun falta eragiten du, “hau ez da niretzat” sentitzera bultzatzen ditu irakurle eta entzuleak».

Nolanahi ere, ez dugu pentsatu behar argi idatzi edo hitz egiteak beti azkar –eta arinkeriaz, agian– ulertzea ekarri behar duenik berekin. Maldonadoren liburuan aurrera eginda, beste hau ere aurkituko dugu: «Testu batzuk astiro irakurri behar ditugu, pentsatuz, hausnartuz, haien bihurtzeetik lasaitasunez ibiltzeko, haien inplikazio guztiez jabetzeko, testuaren garrantzia osorik ulertzeko. Ideia batzuek gure gogamena aktibatu eta inarosten dute, eta patxadaz mamurtu behar dira, digeritu, asimilatu».

Bigarren atala: nondik idazten dugu?

Zerbaiti buruz hitz egin eta idatzi ahal izateko, horren aditzea izan behar dugu lehenik, baita gutxieneko ezagutza bat ere, gonorazko zerbait esango badugu. Hau da, handik edo hemendik, gai horren inguruko kontuak entzun behar izan ditugu aurretik. Hala, hari horretatik tiraka, guk gure ideia propioak garatu ahal izango ditugu, eta gure aldamenekoekin batera hausnartu eta eztabaidatu. Baina, horretarako, berbagaiez gain, berbagai horiek adierazteko hizkuntza ere behar dugu.

Aurtengo Gutun Zuria jardunaldian, Andu Lertxundi idazleak horren inguruko gogoeta egin zuen solaskide zuen Adan Kovacsics itzultzaile eta saiakeragile txiletarrarekin batera. «Zenbat eta obra gehiago itzuli gure hizkuntzara», zioen, «gu, idazleok, kanpoko ahots gehiago irakurtzen ari gara euskaraz, bestela izango ez genituzkeenak. 24-25 urterekin, James Joycek *Dublindarrak* obran jasotzen duen mundua islatu nahi izan nuen, Orioko nire haurtzarora ekarrita. Nire erreferentzia guztiak gaztelaniazko irakurketa bati dagozkio. Erreferentzia horiek gaztelaniaz bilatzen ditut neure buruan, eta gero euskarara ekarri. Liburu hori gaur idatzi izan banu, euskarazko itzulpena joko nuke –bikaina, gainera–, eta horrek aberastu egingo luke nik euskarari egiten diodan ekarpena». Eta ideia hori honela biribildu zuen: «Beste hizkuntza batzuetan idatzitako obra esanguratsuak euskarara itzultzen baditugu, haietan bilduta dagoen ezagutza guztia gure hizkuntzan jasotzen dugu, eta, hala, errazagoa da erreferentzia horietatik

abiatuta gure hizkuntzan sortzen jarraitzea, eta gure hizkuntza aberasten jarraitzen dugu».

Euskaingintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek ere ideia horri heldu zion *Berria* egunkariaren 20. urterrenaren harira idatzitako iritzi-artikuluari: «Baina kontatu ez ezik, *Berriak* euskaldunoi mundualdi hori eskaini egin digu: egin, eragin, sortu eta eman. Mundualdi baten berri emateak eskatzen baitu aurretik ez zeuden hitzak asmatzea, edo zeudenei esanahi berriak ematea, ikuspuntu, ideia eta kontzeptu berriak mamitu eta gorputzetara ekartzea» («Beste mundualdi bat euskaldunontzat», *Berria*, 2023ko ekainaren 21a).

Feminismoarekin ere antzera gertatzen da. Hala ahozkoan nola idatzian, zenbat eta euskarazko erreferentzia gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da gure hizkuntzan sortzen eta gure hizkuntzara itzultzen jarraitzea, baita, hortik abiatuta, gure hizkuntzan berba eta are kontzeptu berriak asmatzen segitzea ere; eta, hala, gure diskurtsoak eta gure gogoeta-bideak aberasten jarraituko dugu, baita hizkuntza bera ere.

Eta horretan dihardugu, egia esan, azken urte luze hauetan. Mugimendu feministaren etengabeko lan eta borrokari esker, baita itzultzaile ugari eta zenbait argitaletxe (sartu hemen zuzentzaileak, editoreak, marketatzaileak, diseinatzaileak, inprimatzaileak, banatzaileak, liburu-dendak eta bururatzeko zaizkizuen langile guztiak) egiten ari garen ahaleginari esker ere, feministok gure diskurtsoa osatzeko baliabideak aberastuz goaz, gure corpusa eraikiz.

Hirugarren atala: nola idazten dugu?

Corpusa aipatu dut aurreko atalaren amaieran. Hori bereziki interesatzen zait; alegia, feminismoaren alorreko testuen corpusa. Zergatik? Besteak beste, itzulpen-lanetan nabilenetan askotan kontsultatu nahi izaten dudalako nola euskaratu duzuen beste itzultzaile batzuek termino hau edo hori, ez bakarrik nire lana errazteko, baizik eta, batez ere, terminologia bateratzeko eta dispersioa saihesteko, eta, hala, hizkera finkatzen jarraitzeko eta testu eta eztabaida anbiguoak saihesteko.

Euskarara, batez ere gaztelaniaren eta ingelesaren bidetik iristen zaizkigu feminismoaren arloko termino eta kontzeptuak, baita haien inguruan diskurtso bat osatzeko gainerako hizkuntza-baliabideak ere. Feminismoan espezializatutako hiztegi sendorik ezean—baita horrekin batera ere, egunen batean hori edukitzera iristen bagara—, corpus bat oso baliagarria izango litzateke, bai euskarazko testuak sortzeko, bai beste hizkuntzetakoak gurera ekartzeko ere; era berean, diskurtsoa eraikitzeke baliabide gehiago ere kontsultatu ahal izango genituzke, jakina, beste alor batzuetako corpusekin egiten dugun bezala. Une honetan, baina, ezin kontsultatu dugu ez bata ez bestea.

2020an, *Feminismoaren eta Berdintasunaren Hiztegia* argitaratu zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) eta Emakundek, elkarlanean; proiektu hark Elhuyarren ekimenez egin zuen aurrera, eta gauzatu ere gurean gauzatu genuen, alorreko hainbat adituk osatutako lantalde ondo jantzi baten laguntza ezinbestekoarekin. Edonola ere, hiztegi hori oso mugatua da;

oinarrizko 150 kontzeptu inguru biltzen ditu, eta, itzulpen-lan mardul edo oso espezializatu bati ekiteko, adibidez, oso motz geratzen da. Gure asmoa zen lehen-lehenik oinarrizko lan hura argitaratzea eta gero, ondorengo urteetan, kontzeptu eta termino gehiagorekin aberasten jarraitzea. HPSk eta Emakundek, baina, beste asmo batzuk zeuzkaten; edo batere asmorik ez, agidanez.

Bada, erabakiz gero era horretako corpus bat behar dugula, eta hori ustiatzeko atari digital txukun bat, nori legokioke horrelako baliabide bat sortzea? Elhuyarrek proiektu hori gauzatzeko proposamen zehatz bat eraman zuen iaz HPSra eta Emakundera, eta, hilabete batzuek baiezkoaren baiezkoan ibili ostean, azkenean ezezkoa eman ziguten. Bide horretan adierazi zizkiguten bateko eta besteko kontuetatik ondorioztatu genuenaren arabera, proiektuaren lehen partea bakarrik interesatzen zitzaien, hau da, testuak—jatorrizkoak eta itzulpenak— biltzea, horrekin EJren itzultzaile neuronala elikatzen jarraitzeko. Bigarren partea, corpus horren ustiaketa askotarikoa guztion eskura jartzeta... Hori ez, hori ez omen zen haien egitekoa. Alegia, «zuek arduratu lurra jorratu, haziak erein eta soroa jagoteaz, eta ni uzta batzeaz—eta niretzako gordetzeaz— arduratuko naiz». Ai, ez, barkatu: argitaletxeak diruz laguntzen dituzte—ditugu, dirua guztiona baita— euskarazko liburuak kaleratzeko; beraz, horrekin kito, ez dute beste ezertan parte hartu beharrik. (Itzultzailearen oharra, inork gaizki interpreta ez dezan: gertaera horiek lehenago ere kontatu izan ditugu jende aurrean, baita xehetasun gehiagoz ere; bidenabar isuritako iritziak, berriz, hitzazurrean esan bezala, neure-neureak dira.)

Horraio, gaurkoz, terminologia-kontuei dagozkienak. Orain, sintaxiaren inguruko zera batzuk ekarri nahi ditut hizpidera. Euskaraz aditzak esaldi barruan hartzen omen duen posizio orgasmikoari buruzkoak –badator, badator...– ez ditut aipatuko, aspaldi erabaki bainuen behar den guztietan aurrera ekarriko nuela, nahiz eta horrek, oraindik ere, eta nire kasuan, bederen, kalteren bat edo beste eragiten dion mintzagaiaren eta galdegaiaren arteko maitasun-harreman erromantikoari. Beraz, aurrera.

Erlatiboeko perpausei, menderakuntzari eta haien guztien gertuko senideei buruz ere ez dut gauza handirik esango. Orainsu arte, haien pilaketa nire ustez gehiegizkoak kirrinka desatsegina egiten zidan belarran; baina, Etxeparek eta enparau klasikoek ere barra-barra eta dotore baino dotoreago erabiltzen bazituzten, zertarako hasiko naiz ni paragrafoz paragrafo kontatzen zenbat aldiz baliatu ditudan horrelako egiturak, eta zertarako saiatuko naiz halakoak beste moduren batean ematen? Bestalde, gertatu izan zait ni horretan aritzea eta bitartean semeren bat hurbildu eta arratsaldeko kontuak aletzen hastea, honela: «Bilbon izan gara aitarekin, eta joan gara taberna batera non lehenago zurekin egonda gauden». Ba ondo, bikain. Ugaritasunari neurria hartu, eta buruhauste bat gutxiago. Segi dezagun hurrengoarekin.

Lehenago aipatu dut aurten Juan Garziaren ikastaro batean parte hartu dudala. Bada, orduko hartan esan zuen, aho batean esan ere, erabatekorik ez dagoela ezer, ez itzulpengintzan, ez bizitzan. Eta, aizu, ni esaldi barruko perpausaren ordenan-eta

ez naiz berez Juan Garziaren oso esanekoa (ez harritu egunen batean nire izena aipatzen badu ikastaroren batean... letra larriz idatzitako *honela ez* baten ondoan), baina adierazpen horrekin guztiz irabazi zuen nire bihotza. Askotan, itzulpen-lan batean murgildu, eta, konturatzerako, ordu bihurtzen diren minutu luzeak pasatzen ditugu erabateko horren bila. Bada, ez. Idatzi kolore biziko post-it batean, edo tatuatu besaurrean: erabatekorik ez dago ezer.

Eta zergatik Juan Garziarekiko aldizkako esanekotasun ez hori? (Eta zergatik demontre ezin dut idatzi Garzia bakarrik? Ba ez dakit, baina ezin dut. Beharbada Juan garzia deitu behar nioke). Bada, kontu batzuetan –ez beti baina–, asko kostatzen zait matematika eta hizkuntza ezkontzea, nahiz eta eroso sentitzen naizen batean eta bestean (matematikari dagokionez, bereziki aipatu nahi dut zientzia-fakultateko lehenengo mailako integralak ebazteko gai izatera ere iritsi nintzela bere garaian). Halere, gogotsu joaten naiz haren saioetara, asko ikasten dudalako, ildo nagusiarekiko nire desbideratzeari neurria hartzen laguntzen didalako eta, batez ere, haren umorea oso gertukoa eta gustukoa dudalako.

Esandakoa: gramatika-kontu batzuei dagokienez –laster aipatuko ditut–, ahalak eta leherrak eginda ere ez dut lortzen hizkuntzaren eta matematikaren arteko gurutzaguneari antz apur bat antzea. Badakit badutela, noski, edo, gutxienik ere, nolabaiteko konparazio bat egin daitekeela bien artean, eta alderaketa horrek hizkuntzarekin –gure kasuan, euskararekin– sortzen zaizkigun zailantza batzuk argitzen laguntzen duela.

Puntuazioari dagokionez, adibidez, ez dut zalantzarik: ez beti-beti, baina, gehienetan, ohiko testuetan eta apur bat bereziagoetan ere, argi ikusten dut zein den hor atzean dagoen matematika, eta, zalantzezko edo hautazko komaren bat edo beste gorabehera, puntuazio-markak txukun antzean erabiltzen ditut –eta, halere, ez dizuet esango zenbat puntuazio-marka aldatu dizkidan artikulu honen zuzentzaileak. Matematikaren bidez iristen naizen horra, edo belarriz egiten dudana... auskalo. Baina iritsi iristen naiz, eta, horrekin pozik. Gainera, horretan behintzat gehien-gehienetan Garziaren (hara!) esanei kasu egiten diet, nahiz eta batzuetan haren menuko komaren bat edo beste jaten dudana. Zeren, berak esan bezala, «puntuazioa dago hizkuntza horretako testuaren beharretara».

Bestelakoa da, adibidez, anaforen matematikarekin dudana harremana. Erotu egiten naiz, eta, azkenean, ez belarria asko luzatuta ez biderketen taula mahaietik aterata ere ez dut lortzen ezer ganorazkorik idaztea. Inoiz pentsatu izan dut berariaz haiei begiratuko dien zuzentzaile bat azpikontratatea eta ardura hori paretik kentzea; azkenean, baina, ohartu naiz gainerako itzultzaileok ni baino askoz trebeagoak zaretela halakoekin, eta, beraz, zuen testuek zuzentzaile neuronalak eta adimen artifizialeko gainerako tresnak elikatuz doazen heinean haiei enkargatu ahal izango dizkiedala nire itzulpen-lanen zuzenketak. Bitartean: hau-hori-hura, beren-beraren-haren, arma-tiro-pun... ikilimikiliklik.

Laugarren atala: hausnartu ere hausnartzen dugu

Hasiera-hasieran, saiakera-testuen konplexutasuna aipatu dut, eta haren bi aurpegiak nabarmendu ditut: hizkuntzarena, batetik, eta edukiari dagokiona, bestetik. Lehena jada nahikotxo jorratu dugunez, heldu diezaiogun bigarrenari, idatzien mamiari.

Aitor dut: nik neurezkoa dut burua batetik bestera ibiltzeko joera –eta berez dator, beraz, oinekin batera burua ere lurrera itsasteko zailtasuna. Halaxe ba, ez dut askorik behar izaten ideia bati lotuta geratu eta harekin batera alegiazko bidaia bati ekiteko. Jakina, joera hori bizio eta bizioa arrisku bilakatu daiteke, behin suziria piztuta zaila izaten baita hura amatatzea... Eta, bitartean, orduak aurrera egiten dute, eta inork ez ditu ordenagailuko lanak nire partez egiten. Baina, tira, zer egingo dugu ba. Amak ere esan zidan, unibertsitateko ikasketak aukeratzeko garaian: «Lehenengo egizu zerbait jaten emango dizuna [alegia, independentzia ekonomikoa ekarriko dizuna], eta gero ere izango duzu arima elikatzeko denbora».

Ama aipatu dut eta, berarekin jarraituko dut apur batean. Orain arte ez dut esan, baina nik, Elhuyarrez aparteko itzultzaile-ibildidean, batez ere Silvia Federici iker-tzaile, pentsalari eta militante feministaren lanak itzuli ditut, guztiak ere Katakarak argitaletxearen eskutik. Bada, haren lerroetan Estatu Batuetan abortatze-eskubidearen inguruan gertatzen eta gogoetatzen ari diren ankerkeriak irakurtzen ditudanean, gure ama zenarengana egiten dut jauzi, eta haren aurreko eta alboko emakume guztien-gana, gehienak nahi gabe eta bitzta zer-

tarako den ulertzer a iritsi aurretik amatu zirenak, eta gero ere behin eta berriro eta behartu-antzean amatzen jarraitu zutenak. Eta burutapen hori hor geratzen da, elkar konektatu gabeko bi neuronaren artean zintzilik, berriz noiz harrapatuko zain. Eta, orduan, lerro hauek idatzi bezperan, Silvia Munt zuzendariaren *Las buenas compañías* filma ikusten dut herriko zinema-aretoan; berriz ere Federiciren ahotsaren oihartzuna sumatzen dut, eta berriz ere gure amen patu bidegabeak belarrondoko bat ematen dit us-tekabean. Eta, kolpearen eraginez edo, lehenagoko burutapenari muturretatik eusten dioten bi neuronek elkar konektatzen dute, eta hortxe dator berriro, masail minduaren azpitik bultzaka, gogoeta.

Neurri handi batean, guk –nik, eta berba hauek irakurtzen ari zareten emakumeok– aukeratu egin dezakegu edo aukeratu egin ahal izan dugu zenbat seme-alaba izan nahi dugun, eta noiz, eta norekin. Gure ama gehienen garaian, ordea, aski zen beroaldi bakar bat –edo harreman behartu puntual edo jarraitu bat– haurdun geratzeko eta lehen ume haren aitarekin betirako lotzeko eta, noski, haiei eta jarraian etorritako ume guztiei ere beren bizitzan lekua egin behar izateko. Beraz, nolabait esan, abortatzeko eskubide ezaren seme-alabak gara gu.

Orain, ordea, abortatu nahi badugu, EAEn, adibidez, lehenengo Osakidetza eta handik klinika pribatu batera joango gara, zeinetan bi pilula emango baitizkigute eta hurrengo egunetan egingo duguna *ezer ez* dela esan, garrantzia kenduaz, hala, gure aurreko emakume ugari –gehiegik, betipairatutako oinaze orori eta abortatzeko edo abortatzen laguntzeko ausardia izatea-

gatik egundoko bidegabekeriak jasan zituzten guztiei; hutsaren pare jarriaz, orobat, kalera pankartarekin ateratzeko kemena eta aukera izan zuten emakumeek egindako borroka guztiak; eta ez ikusia eginez, behin eta berriro, emakumeon borrokaren bitartez eskuratutako erabakitze-eskubidea erabiltzeak –azken deliberamendua edozein dela ere– gure osasun mentalean duen eraginari.

Gauza asko jakin dakizkigu, gehiagoko barik, eta, normalean, ez diegu bestelako arretarik eskaintzen; burmuinean ordenatuki gordetzen ditugun informazio-txatalak dira, apaletan hauts artean eta jada etxeko paisaiarekin bat eginda pilatzen zaizkigun liburuen antzekoak: halako batean, kanpotik datorren eguzki-izpi hezigaitz batek pertsiana beti erdi-zarratuaren zirrikitu bat zeharkatzea lortzen du, eta, balentriaren balentriaz, liburu bat –eta ez besteak– argizatzen du; hala, gure begiek ere liburu horretantxe –ez besteetan, ezta izpiak biziberritutako ilaunetan ere– jartzen dute arre-ta. Halaxe gertatzen da, baita ere, liburuak arduraz irakurtzen ditugunean: testu batek proposatzen dizkigun ideia guztien artetik, gutxi batzuek gure gogoeten hoditerian barrera egitea lortzen dute, eta horiexek, ideia bipil horiek, gure garuneko zoko-mokoak argizatzen dituzte, eta hor barruan pilatuak eta erdi-ahaztuak dauzkagun pentsamendu, bizipen eta sentipenak bizkortzen. Eta hortxe dator, berriz ere bultzaka, beste hausnargai bat.

2022an, Juno Mac eta Molly Smith sexu-langileen *Putu zikinak* itzuli nuen, hori ere Katakarak argialetxearekin batera. Egi-leek diotenez, prostitutek bezeroen beharra dute ezinbestean; gainera, bezeroak zenbat

eta gehiago zigortu, sexu-langileei orduan eta gehiago okertzen zaizkie lan-baldintzak. Azken paragrafo hori itzultzen ari nintzelarik, atzamarrak izoztu eta teklatu gainean pausatu zitzaizkidan, eta, berbertain, Kalpona Akter-en hitzak entzun nituen belarri ondoan. Akter ehungintzako langileen eskubideen aldeko ekintzaile bangladeshtarra da, eta Euskal Herrian izan zen, 2018ko udaberrian, Setem Hego Haizea elkartearen eskutik, beren borrokaren berri ematen. *Berria* egunkarian Kristina Berasainek egindako elkarrizketan, ekintzaileak esaten zuen berak ez zuela inondik ere aldeztzen Zara eta antzeko denden aurkako boikota, horrek kolokan jar zezakeelako lau milioi langile-ren lana. Garai hartan asko pentsarazi zidan, eta oraindik ere ez dut argi izaten zer egin denda horiekin. Semeentzako arropak halakoetan erosten ditut; badakizue, «ez dira geldirik egotekoak, eta, gainera, hazten ari dira; arropak ez die askorik irauten, eta ez du merezi beste era bateko jantziak erostea». Niretzako arropak erosteko, berriz, *beste era bateko* denda horietara joateko ahalegina egiten dut. Hala, orain batera eta gero bestera jota, nire kontraesanak orekatzen saiatzen naiz, ez modurik egokienean, noski.

Eta halaxe gabilta, adarrez adar, erne-guz ernegu, kontraesanez kontraesan. Baina ez bakarrik ordenagailuaren aurrean gaudenean; itzulpen-lanak bukatutzat emandakoan ere, gogoeta horiek buruan jiraka jarraitzen dute, eta hortik aurrera ikusten, irakurtzen, entzuten duzun guztiak hausnarketa horiekin bat egiten du. Suziriak bezala, buruko makinak ere ez dira berehalakoan itzaltzen.

Bosgarren atala: zaintzen ditugu, zaintzen gaituzte?

Liburu bat itzultzeko proposamena jaso eta baiezkoa ematen dudanetik aurrera, etxean dena apur bat hankaz gora jartzen da. Gurean hiru gara, ni neu eta bi seme; orain 14 eta 16 urteko gaztetxoak dira, baina, 2017an, bulegoko lanaz aparteko itzulpen-lan hauei ekin nienean, 8 eta 10 urteko umeak ziren, artean ere heldu baten gertutasun ia etengabea behar zutenak. Aita ere badute, baina, zaintza partekatua kontuak tarteko –oi, ai–, urte batzuetan ni arduratu nintzen aste barruko arratsaldeetako zaintzaz, eta horrek, noski, ez zidan beste ezertarako tarte material eta mental handirik uzten. Bestalde, segidako urte batzuetan, gure aitak sartu-irten asko egin zituen ospitalera, eta, harenean txanda egitea egokitzen zitzaizdanean, hantxe egoten ginen, bera liburu edo aldizkari bati begira edo lotan, besterik ezinean, eta ni aldameneko besaulki ortopedikoan, ordenagailua altzoan albait erosoan kokatu eta bezperan etxean itzulitakoak zuzentzen. Uste dut orotara hiru bider suertatu zitzaidala ospitaleko zaintza eta itzulpen-lana aldi berean egin behar izatea, bulegoko lanarekin batera, jakina.

Lehenengo itzulgaiarekin oso epe estua izan nuen, eta han ibili nintzen, ordenagailua hartu eta kiroldegiko egongela handian itzultzen, semeak igeritokiko uretan txipli-txapla jolasten ziren bitartean; edo liburutegiko besaulkietan, umeek Asterixen eta Harry Potterren hitzak irensten zituztela; edo parkeko aulki bizkarrik gabekoetan, bi txikiak jolaslekuko txinborik garaienera igotzen zirela. Herriko wifi publikoa erabiltzen

nuen, eta begi bat pantailan eta bestea se-
meen zeregin eta joan-etorrietan jarrita lan
egiten nuen.

Ostiral eta larunbatetan, eta bestelako
jaiegun bezperetan, gauez ere lan asko egi-
ten nuen, ez bakarrik ordu horiek ere behar
nituelako, baizik eta gaueko ordu txikietan,
txiki-txikietan, halako berotasun bat sor-
tzen zitzaidalako burmuinean, halako gel-
diezin bat, neuronak pil-pilean egongo ba-
lira bezala, eta orduan dena zen errazagoa,
testu itzuliak azkarrago egiten zuen aurre-
ra, eta lanaren emaitza ere askoz landuagoa
eta behin betikoagoa izaten zen. Bai, askoz
produktiboagoa nintzen gauez, eta, garai
hartan, une zehatz hartan, produktibitatea
asko baloratzen nuen, ezinbestean –errepro-
dukzioaren ajeak. Gainera, lan produkti-
boaz aparte, saiakera artistikoak ere egiten
nituen, buru barruko erreazio kimikoetan
aditua den norbaitek azaldu beharreko go-
rabeherak tarteko. Kamera digitala hartu,
eta argazki surrealistikak egiten nizkion neure
buruari; aurpegiari, zehazki. Jakina, gau su-
kartsu haiek goiz motelak ekartzen zituzten,
baina hori (ia) gutxienekoa zen. Etxean beti
izan gara goizez lo egin zaleak, eta ez zidan
inork kargurik hartzen; ama noiz jaikiko,
orduan hasten zen eguna guretzat. Orduan
hasten ginen gosaltzen, etxeko eta etxerako
lanak egiten, herrian dendaz denda ibiltzen,
arratsaldeko planak adosten.

Gerora, nire burmuinak ikasi du egune-
ko ordu zentzuzkoetan ere eraginkorragoa
izaten, eta ikasi du, batez ere, gaueko sukar
horiek amatatzen eta hamarrak ingururako
ordenagailuaren pantaila erabat belzten.
Prozesu hori nola izan zen azalduko nizue-
ke, baten bati lagungarri izango zaiolakoan;

ezinezkoa zait, ordea: uste dut bizirik irau-
teko mekanismoren bat piztu zitzaidala eta
burmuinak ezordu horietan substantzia ak-
tibatzailearen bat jariatzeari utzi ziola. Orain,
aste barruko arrasti eta iluntzeetan itzultzen
dut, eta asteburuetan goizez ere batzuetan,
batez ere semeak aitarenean daudenetan.
Orain, baina, itzulpen-lana ez da hain pisua,
edo ez diot nik bakarrik eutsi behar zama
horri, amatasunak dakartzan gainerako lan
guztiei ere kasu eginda. Azken bizpahiru
urteetan, etxeko lanak, erosketak, bazkaria,
elkar zaintzea eta bestelako erreproduktio-
lanak hiruron artean egiten ditugu, eta
esango nuke semeak ere sentitzen direla,
nolabait, itzulpen-lan horren egile. Ordena-
gailuaren aurrean buru-belarri nabilenetan,
zaharrenak opil gozoak eta arroz-esnea egi-
ten dizkit, eta txokolata beltzezko bestelako
gutuziak; gazteenak, aldiz, bere ilustrazio eta
pintura-lanak erakutsi eta azaltzen dizkit
xehe-xehe, edo gitarra elektrikoa hartu eta
aldamenean jartzen zait, eta abesti bat eska-
tzeko aukera ematen. Badakite nekagarria
dela horrela lanean aritzea, bulegoko lana,
batetik, eta etxekoa, bestetik. Badakite ere
ama gozozalea dela, eta gozoa behar duela,
gainera, burmuinari eragin behar dionean.

Beraz, azkenean, itzulgaietan behin
eta berriro azaltzen zaizkidan termino eta
kontzeptuak gorpuztu egiten dira gure in-
gurubiran. Lan-karga, karga mentala, zain-
tza-lana, zaintza partekatua, produkzioa
eta erreproduktzioa, hezkuntza feminista...
Dena eskutik doa gurean, denak bat egiten
du, eta ezinezkoa zait bat bestetik bereiztea,
denek elkar elikatzen dutelako, denak elka-
rri begira daudelako, denek elkarren beha-
rra dutelako. Gurean, feminismoa ez da

amaren kontu bat, ez da egun seinalatuetan leihotik sartzen den aldarri bat. Gurean ere, beste etxe askotan bezala, gero eta teilape gehiagotan bezala, feminismoa munduari begiratzeko eta munduan egon eta borrokatzeko modu bat da, elkarbizitzarako oinarria, etxean eta kalean.

Hitzostea

Honaino iritsi bazara, ez zara makala, eta ondo merezia duzu bake pixka bat ematea. Eskerrik asko bidean lagun egiteagatik, hurren arte!

Resumen

En este artículo, la autora relata, en un tono libre y desenfadado, ciertas vivencias y reflexiones derivadas del trabajo que realiza traduciendo textos del ámbito del feminismo. Asimismo, propone una reflexión abierta sobre el euskera que utilizamos o que quizá deberíamos utilizar en las obras de ensayo, en general, y en las que tratan sobre el feminismo, en particular.

Résumé

Dans cet article, l'auteur rapporte sur un ton libre et désinvolte certaines expériences et réflexions issues de son travail de traductrice de textes du domaine du féminisme. En outre, elle propose une réflexion ouverte sur la langue basque que nous utilisons ou que nous devrions peut-être utiliser dans les essais en général, et dans ceux qui traitent du féminisme en particulier.

Abstract

In this article, the author relates, in a free and casual way, some of the experiences and reflections that have emerged from her work translating texts in the field of feminism. It also includes an open reflection on the Basque language that we use, or perhaps should use, in essays in general, and in those that deal with feminism in particular.